

OSOGUNEKO ERAKASKERA

1995/96.

DELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Noiz hedatzen zituzten ongarniak?
2. Zorbat ongarni-mota? Eta nola hedatzen zituzten?
3. Maitza zaitzete xerruag -

PIARRES

II

LANEAN 5

Abendoa, urtharrila bazoazin hola. Ongarniak hedatzen ari zituzten sorho guzietan, beltz beltza, dena khe, dena lanho, lasto... zitu²⁹ batzuz ihaurriak ³⁰ Onkailu ona, osoa hola lehenik eman... xori-ongarniak hedatuko zituzten, bertze urthe batez, edo bertze lur batzutan, bazterrak oro betan erhoturik ezarri gabe, zuhurki eta jakituz.

Eta orain, sukilak³¹ heldu ziren etxerat Oihan-xutetik, Errekaluzetik, jaun handi batzu iduri, alfer eta nagi, luze luzea emanak orgetan: kopeta zimurtuz, adarrak beheiti makurtuz, adar klaska³² handi batean ekartzen baitzituzten Katzok eta Gorriak. Sukilak etxean sartzen... eta lehen elhur-lumak xuri xuria erortzen; eta erran gabe doa, Gantxume, heiaiko athetik, oihuka hasi zela berehala:

"Elhur-melur,
Ez nuk hire beldur,
Badiat etxean artho'ta egur!"

Xemartin ethor ziteken Amotzetik, urde gizenaren hiltzera, Gantxumek lagunduko zuen, buzianetik xerria bi eskuz atxikiz. Amattok bihotzean min zuen ba pitta bat, bere *hurrinari* lephoan... sakiaren³³ aintzinean ematen zuelarik kobre gorritzko pandero... rra. Hain maite zuen hurrin, hainbertze ferekatu eta *hutzkatu* zuen, hamar hilabetez, bere lepho gizenaren gainean, bere bi beharri handien artean! Hainbertze puska onez hazia ere zuen, hainbertze artho-bihiz pullitua, borobildua, gogortua!... Baina, Piarresek burla maite zerbeit erranik, arintzen zitzaion amari bere bihotzmina, hirri bat ere ethortzen azkenean expainetara... Ororen buruan, Jainkoak gizonarentzat eginak ez othe zituen alimaleak?

III ADITZ IKASKUNTZA.

- | | |
|-----------------------|--------------------|
| 31. Bazoazin | 32. Ethor ziteken |
| 33. Arintzen zitzaion | 34. Zintzaitzaitan |
| | Zintzaitzaitaten |

31 JOAN. Indic. Imparfait. Conditionnel

Nindoan = j'allais	Ni nindoake: (j'irais)
Hindoan = tu allas	Hi hindoake: (tu irais)
Zinoatzen = vs alliez	Zu zinoazke: {
Zoan = {	Hura loake: {
Ginoatzen = {	Gu ginoazke: {
Zinoazten = {	Zuek zinoazhete: {
Zoatzen = etc	Heuk loazke: etc.

32 IZAN. Potentiel Imparfait.

- Ni izan ninteken = je pouvais être
 Hi izan hinteken = tu pouvais être
 Zu izan zintezken = vous pouviez être
 Hura " ziteken = il pouvait être
 Gu " gintezken = nous pouvions être
 Zuek " zintezketen = vous pouviez être
 Hek " zitezen = ils pouvaient être

33 IZAN. Régime indirect Indicatif Imparf.

- Hura zen = il était
 Hura zitzaitan (eni) = il m'était
 zitzaizun (zuri) = il vous était
 zitzaion (hari) = il lui était
 zitzaigun (guri) = il nous était
 zitzaiguen (gure) = il vous était
 zitzaien (heire) = il leur était.